



## FORO DE BARRIO

### AUZO-EZTABAIDAGUNEA

### 2018

### BUZTINTXURI

<b>Fecha / Data:</b>	2018/06/12
<b>Hora / Ordua:</b>	18:30
<b>Lugar / Kokalekua:</b>	Buztintxuri IP
<b>Concejal de barrio / Auzo-zinegotzia:</b>	Mikel Armendariz
<b>Participantes / Parte-hartzaileak:</b>	Gutxi gorabehera 11 pertsona: 7 gizon eta 4 emakume.
<b>Otros / Bertze batzuk:</b>	
<b>Moderadora / Moderatzailea:</b>	Floren Luqui, Herritarren Partaidetzako teknikaria SDC: Gabriel de Diego, Elena Esparza

#### Apertura / Hasiera

#### Eztabaidagunearen aurkezpena, Floren Luquiren eskutik

Luquik, Herritarren Partaidetzako teknikariak, auzo-eztabaidagunerako ongietorria egin die bertaratutakoei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik. Azaldu du parte-hartzaile gutxi daudenez ezin direla egin diseinatuta zeuden lantaldeak, eta, horregatik, moldatu egingo dela hasierako planteamendua; jarraian, Mikel Armendariz auzo-zinegotziari eman dio hitza.





zartea

## El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

### Mikel Armendariz auzo-zinegotziaren mintzaldia

Auzo-zinegotziak auzoaren testuinguru demografikoa azaldu, eta saltegi-kopurua handitzeari buruzko azken urteetako datuak eman ditu; ondoren, adierazi du, banakatuta, zer esku-hartze edo jarduketara-ildo egin dituen Udalak Buztintxurin, eta zer duen aurreikusita egitea. Oro har, honako alderdi hauetan zentratu da:

- **I.- Zirkulazioa mantsotzea:** Armendarizek aipatu du semaforoak jarri direla Gipuzkoa etorbidearen eta Maiatzaren Plazako Amen kalearen arteko bidegurutzean, eta "guardia etzanak" jarri direla Trenbideko kalean.
- **II.- Hiri-kontserbazioa:** Armendarizek erran du joan den maiatzean laguntza teknikoa onetsi zela Trenbide kaleko 2.eko eraikina eraisteko proposamena egiteko eta gero partzela berrurbanizatzeko. Halaber, adierazi du instalazio elektrikoarekin lotutako egokitze-lanak egin direla Erraldoien Plaza izendatu berrian.
- **III.- Eskola-baratzea:** Auzo-zinegotziak erran duenez, 2018-2019 ikasturterako aurreikusita dago eskola-baratze bat jartzea auzoko haur-eskolan, proiektu horren pilotuak emaitza interesgarriak eman baititu.
- **IV.- Aisialdia eta denbora libre:** Armendarizek berretsi du aurten ere egingo dela Buztintxurin udako zinema, aurreko edizioako ereduari jarraituz. Halaber, gogorarazi du La Pamplonak parte hartu zuela auzoko bestetan, eta herri-bozketa bat egin zela ofizial egiteko II. puntuan aipatutako plazaren izena.
- **V.- Zentro komunitarioa:** Auzo-zinegotziak jakinarazi du maiatzean sinatu zela Gipuzkoa etorbideko eremua auzoko kolektiboari lagatzea, hiru urteko prozesu baten ondoren.

Azkenik, Mikel Armendarizek bere mintzaldia amaitu du, eta hitza eman die hurrengo ekarpenak egingo dituztenei: Emilio, Komunitate Polizia zerbitzuko kidea; Buztinsare profesional-sarearen ordezkari bat, eta, azkenik, beste lagun bat, Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioan aktiboki parte hartzen duten erakundeen izenean.



### **Emilio auzoko komunitate-poliziaren mintzaldia**

Buztintxuriko komunitate-poliziak bere burua aurkeztu du laburki bertaratuen aurrean, eta adierazi du auzoan izango duen eginkizuna izango dela bitartekari-lana egitea gizarte-sarearen eta udal-administrazioaren artean, arazoren bat sortuz gero.

### **El barrio informa / Auzoak informatzen du**

#### **Buztintxureando Txuriko Bearen mintzaldia, Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioari buruz**

Zentro Komunitarioa duela bost urte sortutako kolektibo-sarearekin lotu du Beak; sare horretan, erakunde hauek hartzen dute parte, bertzeak bertze: Konpartsa, Futbito Elkartea, Joaldunak, Unzu Txiki Berri, auzo-elkartea, Bizilaguna, erretiratuen elkarte sortu berria eta abar.

Ondoren, adierazi du kolektibo horiek eta beste batzuek dagoeneko gauzatzen dutela beren programazioa Zentro Komunitarioan, eta hitza eman die bertaratu diren ordezkariak. Hala, **Adinekoen Elkarteak** dei egin du interesa duten pertsona guztiek parte har dezaten; kexatu dira ez dituztelako beren jarduerak egiteko behar dituzten altzariak, eta jarduerak egiten jarraitzearen alde egin dute (txangoak, kasu).

Ondoren, **Unzu Txiki Berri** elkarteko Erkudenek elikagaiak banatzearekin lotu du elkartearen jarduerak; hil bakoitzeko hirugarren ortziralean egiten dute. Halaber, jakinarazi du 300 metro koadroko lokal berri bat utzi diela udalak, eta hura egokitzen ari direla gaur egun. Helburua da elikagaiak jasotzen dituzten lagunek han lan egin ahal izatea, eta, hala, Elikagai Bankuak emandako produktuen merkatu horrek aurrera jarraitu ahal izatea.

**Futbito Elkarteko** ordezkariak, berriz, kritikatu dute altzari gutxi egotea Zentro Komunitarioan, eta WiFirik ez edukitzea. Ondoren, zentro komunitarioa alde batera utzita, jakinarazi dute beren erakundearen asmoa dela diziplina anitzeko klub bilakatzea, eta ez dela *duina* Buztintxuriko haurrak beste auzo batzuetara joan behar izatea kirola egiteko. Erran dutenez, hori lotuta dago kirol-instalazio egokirik ez izatearekin; izan ere, aterpe egokirik ez dute, eta euria egiten duenean, entrenamenduak eta partidak bertan behera utzi behar izaten dituzte. Proposamenei dagokienez, aipatu dute ikastetxearen ondoko zelai bat berrurbanizatu eta egokitu daitekeela pista gisa erabiltzeko. Jada helarazi diote proposamena idatziz udalari, Apymaren bidez.

Beak, bere mintzaldia amaitzeko, jakinarazi du bozketa bat abiarazi nahi dutela ikastetxeetan, haurrek parte har dezaten eta erabaki dezaten zer izen jarri zentro komunitario berriari. Eraitza besten aurreko astean jakinaraziko dute, zentroaren inaugurazio publikoaren testuinguruan.



### **Hodeiren mintzaldia, Buztinsare ekimenari buruz**

Hodeik **Buztinsare** ekimena aurkeztu die bertaratuei, auzoan lan egiten duten erakunde publikoetan abiapuntua duen sare bat; eta azaldu du zeinek osatzen duten sarea: Prebentzioko Komunitate Ekintzako Zerbitzua (Buztintxureando Txuri), Auzoko Unitatea, osasun-zentroa, Emakumearen Zerbitzu Zentroa, ikastetxeak eta Osasun Mentaleko Zentroa.

Gehitu du helburua dela Buztintxuriko bizitza komunitarioan parte hartzea, eta bertze planteamendu eta logika batzuk ematea erakunde publikoen ikuspegitik. Hodeik erran du sareak hiruzpalau urte daramatzala martxan, eta jarduera eta programa batzuk aipatu ditu, haren jardunaren adibide: “Guratzuri” guraso-eskola, Haurren Eskubideen Eguna ospatzea eta auzoaren diagnostiko batean parte hartzea.

Amaitzeko, auzoko hurrekin egindako diagnostikoaren ondorio orokor batzuk aipatu ditu Hodeik: kirol-instalazioen azpiegiturak, liburutegia eta aisialdirako eremuak falta dira.

## **Grupos de Trabajo / Lantaldeak**

### **Floren Luquiren mintzaldia, eztabaidagunearen bigarren atalari buruz**

Partaidetzako teknikariak adierazi du auzo-eztabaidaguneen formatu berriari jarraituz bertaratuek erran behar dutela zer gai landu nahi dituzten topaketaren gainerako zatian. Horrekin lotuta, kontzeptuak bereizi ditu: “gorabeherak” kontu zehatzagoen ingurukoak dira, eta “proiektu-proposamenak” transbertsalago eta orokorragoak dira, adibidez, mugikortasuna edo



kirol-instalazioak. Eta gehitu du helburua dela azken alderdi horiek lantaldeetan lantzea.

Aukera hori azaldu ondoren, tarte bat utzi da bertaratuek iradokizunak egiteko eta hitz egiteko.

## El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

### Bertaratuek oro har errandakoa

Bloke honetan bertaratuek errandakoa, gehienbat, epigrafe hauetan bil daiteke:

- ✓ Bertaratuetako batek **begi onez ikusten du gizarte-sareak auzorako kirol-instalazioen inguruko proposamena aurrera eramatea**, kokapena, egitura, ezaugarriak eta abar zehaztuta.
- ✓ Auzotarretako batek harridura agertu du aurkeztutako kontu batzuei buruz (Buztinsare sarea, Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioa, kiroldegia...), eta adierazi du **komunikazio handiagoa behar dela auzotarren artean**. Horretaz gain, gorabeheri dagokienez, kezka agertu du honako alderdi hauen inguruan:
  - 1) Mugikortasuna: “Dei-efektuen” beldur da, Arrotxapea auzoan eremu urdina ezartzearen ondorioz.
  - 2) Cuatrovientoseko pasabidearen egoera.
  - 3) Gorabehera orokorrak: txakurrak solte ibiltzea, zikinkeria...
- ✓ Ander **Buztintxuri IPren** zuzendariak adierazi du bere ustez “*erakundeen utzikeria*” dela zinegotzia ez joatea eskola-kontseiluetara eta ikastetxeak bidalitako mezu elektronikoki bati ez erantzutea. Horretaz gain, kezkatu da esanez **erakundeen arteko koordinaziorik ez dagoela** modulu aurrefabrikatuak dauden orubea txukuntzeko, eta kritikatu du eztabaidagunean bertan pentsatu behar izatea zer gai eztabaidatuko diren, aurretiaz abisatu gabe.
- ✓ Hitz horien ildotik, **Buztintxureando Txuriko** Hodeik adierazi du auzo-eztabaidagunearen formatua “*zaharkituta*” dagoela, eta nekea eta utzikeria sumatzen dituela. **Uste du buelta bat eman behar zaiela**, eta udalak gardentasun handiagoarekin jokatzeko eskatu du (alorrak, eskumenak, aurrekontuak...), bertzenaz ez baita “*parekoen arteko*” solasa, “*iruzurra*” baizik. Beak, elkarte berekoa hura ere, erantsi du bat datorrela planteamendu horrekin, eta agian erakargarriagoa egin behar dela eztabaidagunea, beti lagun berak edo bertsuak etor ez daitezen.
- ✓ Azkenik, **landu diren azken gaietako bat izan da adineko pertsonena**. Beak (Buztintxureando) eskatu du “jubiloteka” gehitzeko aurrekontuetako hurrengo partidan. Bertze alde batetik, Israelek erran du interesgarria izango litzatekeela Trenbideko kaleko 2.ean egingo den obra moldatzea eraikinean etxabeak jartzeko; hala, adinekoek beren espazio propio berezia izango lukete.

✓



## Cierre / Amaiera

### **Amaiera, Floren Luquiren eta Mikel Armendarizen eskutik**

Herritarren Partaidetzako teknikariak eskerrak eman ditu jasotako ekarpenengatik, bereziki partaidetzako organo honen dinamikari berari buruzkoengatik. Ekitaldia amaitzeko, Armendarizek hitza hartu du, eta adierazi du gogoan hartu dituela errandakoak, eta dei egin die bertaratuei hurrengo auzo-eztabaidagunera etortzeko; irailean izango da.